

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LEGUTIOKO UDALA

Deialdiaren eta oinarri arauen laburpena, euskara ikasteko laguntzak emateko (2015-2016 ikasturtea)

BDNS (identifikatzailea): 318925

Bat etorri azaroaren 17ko 38/2003 Legeak, dirulaguntzen orokorrak, 17.3.b eta 20.8a artikuluetan aurreikusitakoarekin, argitaratu egiten da deialdiaren testu osoa, zeinaren testu osoa dirulaguntzen base nazionalan (<http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans/index>,) eta Legutioko Udalaren web orrian (<http://www.legutio.eus>) kontsulta baitaiteke.

Xedea

Deialdi honen xedea da arautzea 2015-2016 ikasturtean euskara ikasteak eragindako gastuak finantzatzeko laguntzak ematea.

Onuradunak

Legutioko udalerrian erroldatutako pertsona fisikoak izan daitezke onuradun.

Betekizunak

Legutioko udalerrian erroldatuta egotea ikastaroa eman den aldian.

Euskara ikastaroa euskaltegi homologatu batean egin izana.

Eskolen ehuneko 80ra edo gehiagora joan izana egiaztatzea.

Aurrekontu kreditua

Laguntzen zenbatekoa 3.000 euro da, eta 335.481.010 aurrekontu partidaren kontura finantzatuko da.

Eskaerak eta agiriak.

Eskaerak Udalaren sarrera erregistroan aurkeztu behar dira, edo azaroaren 26ko 30/1992 Legeak, herri administrazioen araubide juridiko eta administrazio prozedura erkidearenak, 38.4 artikuluan adierazten dituen bideetako edozeinez baliatuz.

Eskaerak egiteko epea 2016ko urriaren 1etik 31ra bitartekoa izango da.

Eskaerarekin batera, agiri hauek aurkeztu behar dira:

Egindako ordainketaren frogagiria.

Euskaltegiaren ziurtagiria, zehaztasun hauek jasota: ikaslearen datuak, egin duen maila, asistentzia eta ikastaroaren hasiera eta amaiera eguna.

NANaren fotokopia.

Zinpeko aitortpena, jasotzen duena eska ditzakeen beste laguntza batzuekin batera ez da goela gainfinantzaketarik.

Legutio, 2016ko urriaren 5a

Alkate lehendakaria

NEKANE GARAIGORDOBIL BENGOA